

ZUMARRAGA / Irakurzaletasuna sustatzeko urte osorako kanpaina aurkeztu du Liburutegiak

Sei eta hamabi urte bitartekoei zuzendua da ekimena, eta ostegunean egingo dute lehenengo saioa.

Idoia Luzuriaga

Zumarragako Liburutegiak irakurzaletasuna bultzatzeko aurtengo kanpainari ekin dio. Aldaketa bat nabarmena da: urte osorako plangintza kaleratu izana. Programazioan zortzi tailer eta ipuin kontaketa saio bat izango dira, datorren ostegunean hasi eta abendura bitartean.

Saioak hilabeteroko azken ostegun guztietan izango dira, uda garaikoetan salbu, ordubeteko iraupenarekin, 17:30ean hasita. Sei eta hamabi urte bitarteko gazteei zuzendutakoak dira eta alde zuzenetik izena eman beharko dute, liburutegian bertan, parte hartu ahal izateko. Dagoeneko izen-ematea zabalik dago.

Liburutegira gerturatu

Tokia 20 lagunentzat mugatua izango da, eta izena ematerakoan euro bat ordaindu beharko da. Jardunaldien helburua haurrengan eta gaztetxoengan irakurzaletasuna bultzatzea da, azaldu dute liburutegiko arduradunek. Baina, era berean, liburutegia erabili eta maileguak egiteko ohitura sortzea ere nahiko genuke.

Ostegun honetako saioan Gure liburutegiaren gidaliburu irudiztatua tailerra egingo dute. Parte-hartzaileek interesgarria iruditzen zaien guztia jasoko dute gida ilustratuan, hala nola baliabideak, liburutegiko arauak, fondoak eta bestelako informazioa.

Egindako lan batzuk liburutegian geldituko dira ikusgai, hala nola idazmena saioetakoak edo ilustrazioak.

Liburutegiko arduradunen arabera, egoitza berrian daudenetik mugimendu handiagoa nabari da liburutegian, batez ere arratsaldeetan.

Saioak

Urtarrilak 31. Gida ilustratua.
Otsailak 28. Ilustrazioa.
Martxoak 27. Idazmena.
Apirilak 24. Ipuinen dekoratua.
Maiatzak 29. Poesia.
Irailak 25. Txotxongiloak.
Urriak 30. Ipuin kontalaria.
Azaroak 27. Idazmena.
Abenduak 18. Ilustrazioa.